

ABIAN DAUKAN KONFIGURAZIOA

Eskaera abian daukan konfigurazio jakin baterako egingo da, ardatz eta ardatz-lerro kopuru bera daukan baterako, eta, posizio berarentzat, II. eranskinean jasotako datuekin bat egin beharko du.

6 ardatz-lerro baino gehiagoko konfigurazio euromodularrak bakarrik izango dira baliagarriak, eta inplikaturako ibilgailuen ezaugarriek behar bezala justifikatuta egon beharko dute beren fitxa teknikoetan. Ibilgailuen ezaugarri teknikoak ez dira banan-banan onartuko, dagokien fitxa teknikoetan inskribatuta agertzen ez badira. Hala ere, izan daitekeen ibilgailuen konfigurazio euromodular bakoitzarentzat aintzat hartu beharreko egoerarik kaltegarrienak edo murriztaileenak direla eta, eskatzaileak Multzoaren Ziurtagiri Teknikoa aurkeztu beharko du, IV. eranskinean ezarritako aurreikuspenei jarraikiz.

Multzoaren eta modulu indibidualen gehieneko masa eta dimentsioak izango dira IEOk IX. eranskinean multzo euromodularrentzat, ibilgailu motordunentzat, atoi-entzat eta erdi-atoi-entzat ezarritakoak.

Eskaeran dauden ibilgailuek, multzoan abian posizio berean daudenean, bat egin beharko dute honakoekin:

1. ibilgailu mota (homologazio- eta eraikuntza-irizpide bera)
2. ardatz eta ardatz-lerro mota
3. Tarte berean dauden ardatz-lerroen arteko distantziak, ondorio horietarako, honakoak aintzat hartuta:
 - a. 1,00 m-ra arte ($d < 1$)
 - b. 1,00 m edo gehiago eta 1,30 m-ra artekoa ($1 \leq d < 1,30$)
 - c. 1,30 m edo gehiago eta 1,80 m-ra artekoa ($1,30 \leq d < 1,80$)
 - d. 1,80 edo gehiago ($1,80 \leq d$)
4. Gurpil kopurua eta mota
5. Hurrengo modulu ibiltarira akoplatzeko era.

Ardatz eragileari edo eragileei baimendutako gutxieneko kargako masa multzoaren karga osoaren masaren % 25 izango da, salbu eta interesdunak borondatez multzo euromodularren zirkulazioari buruzko ebaluazioko azterketa tekniko batean parte hartzea onartzen badu. Kasu horretan, % 25 baino ehuneko txikiago batekin zirkulatzeko baimena emango zaio. Nolanahi ere, % 8ko aldapetan mugimendua hasteko, 11,5 T-ko motor-ardatzaren gainean masa bat ardatzeko bermatu behar du.

Euromodularrek gai izan behar dute 360°-ko ibilbide zirkular oso bat egiteko, bi aldeetara, bi zirkulu zentrokidek zedarritutako eremu batean —bi zirkulu horien

kanpoaldeko eta barrualdeko erradioak 12,50 eta 5,30 metrokoak izango dira, hurrenez hurren—, ibilgailuaren kanpoaldeko muturreko puntuak zirkuluen zirkunferentzietatik at proiektatu gabe.

Interesdunak borondatez onartzen badu multzo euromodularreko zirkulazioari buruzko ebaluazioko azterketa tekniko batean parte hartzea, kanpoaldeko eta barrualdeko erradio horien balioa handitzeko aukera emango zaio, hark berak adierazitakora arte. Egoera hori bideko titularrari jakinaraziko zaio, eta hark kontuan hartu beharko du hori eskatutako ibilbideari buruzko txosten loteslea egitean.

- Hona hemen 25,25 metroko luzerako konfigurazio horren adibide batzuk:

7 ardatzekoak:

"2 ardatz-lerroko atoi-kamioia" + "3 ardatz-lerroko erdi-atoia" [*5 ardatz-lerroko ibilgailu artikulatua*] + "2 ardatz-lerroko atoa"

8 ardatzekoak:

"3 ardatz-lerroko ibilgailu zurruna" + "5 ardatz-lerroko atoa"

"2 ardatz-lerroko atoi-kamioia" + "3 ardatz-lerroko erdi-atoia" [*5 ardatz-lerroko ibilgailu artikulatua*] + "3 ardatz-lerroko atoa"

9 ardatzekoak:

"3 ardatzeko ibilgailu zurruna" + "6 ardatzeko atoa"

11 ardatzekoak:

"6 ardatzeko ibilgailu artikulatua" + "5 ardatzeko atoa"